111

# Doktrina uskaraz.

Kristiain zraya? Bai Jeina, Juangeiko Jeinaren graziaz. Kristiayaren nombre kori, nontik ekun zunien? Gore Jesukristo Jeina ganik. Zer erranaidu Kristiaya? Kristoren gizona. Zer erranaidu Kristoren gizona? Gore Jesukristo Jeinaren fedia diona, zoin baitago Bautismo Saintian konfesaturik aren zerbuchu saintiaren empleetra. Zoin da kristiayaren señalea? Kruche Saintia. Zerengatik? Zeren baita Kristo kruzifikatiaren figura eta berartan redimitu baigutien. Zombat gisaz biar dugu ikasi zeñetan? Bidez, Jeina. Zoin drade? Zeñeta eta santigeta. Zer da zeñeta? Irur krucheren egitea. Nola? Leina borontean, Bigarna aoan, Irorgarna burarretan

minzetan glerarik Gore Tein eta Juangoiko Teinareki, erraiten dugularik: Kruche Saintiaren señalea gatik gore esayetatik libra gizazu, Joangoiko Gorea. Zerengatik zeñetan gra borontean? Joangeiko Teinak guarda eta libra gizan pensamentu gaisto guzietarik. Zerengatik zeñetan gra aoan? Joangeiko Teinak guarda eta libra gizan iz gaisto guzietarik. Zerengatik zeñetan gra burarretan? Joangeiko Teinak guarda eta libra gizan obra eta deseo gaisto guzietarik. Zer da santigeta? Kruche andi baten egitea. Nola? Borontetik biozeara, biozetik ezkerreko soineara, ezkerrekotik eskoinekoara, minzetan grelarik Trinitate Saintu Teinareki, erraiten dugularik: Ai-

taren izenean, eta Semearnean, eta Espiritu Saintu Seinearnan. Amen. Jesus.

## Orazionak uskaraz.

Kruche Saintiaren señalea gatik gore esayetatik libra gizazu Joan goiko Gorea. Aitaren izenean, Semearnian, Espiritu Saintu Seinarnian. Amen. Jesus.

Aita Gorea, zeurietan zaudiana, santifika bedi Zore izena; sin bekigu Zore reinoa; gore gana kumpli bedi Zore borontatia, nola zeurian kala lurrean. Zuk iguzu gore egunozko ogia; Zuk parkadiazkuzu guri gore zorrak, guk nola parketan baitugu guri zor daikuguner; ez gizazula eiz tentazionian erortra, baizi libra gizazu gach guzietarik. Amen. Jesus.

## Abe Maria.

Joangeiko Jeinak salba zizala, Maria, grazi andiz betea; Jeina duzu Zoreki; Zuk benedikatia duzu emazteguzien artean, eta benedikatia duzu Zore sabel birjinaleko frutia Jesus. Santa Maria, Joangeiko Jeinaren Ama, Zuk otoi egin zazu gu bekatarien gatik orai eta gore il ordian. Amen.

Jesus.